

## AZKUNA ZENTROAK ISIDORO VALCARCEL MEDINA ARTISTAREN “ARQUITECTURAS PREMATURAS” ERAKUTSIKO DITU

- Isidoro Valcárcel Medina Arte Plastikoen Sari Nazionala da (2007) eta arte kontzeptualaren funtsezko figura.
- Erakusketa gaur, maiatzak 10, inauguratuko da Isidoro Valcarcel Medina artistaren, Kristine Guzman komisarioaren eta Patxi Eguiluz Canicheren (Editorial Caniche) arteko elkarrizketa batekin.
- Erakusketa, Azkuna Zentroak eta Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoak (MUSAC) koproduzitua, irailaren 18ra arte egongo da zabalik Lantegiko erakusketa aretoan (BAT Espazioa).
- Proiektuaren barruan, besteak beste, “Arquitecturas prematuras” izeneko argitalpena dago, Isidoro Valcárcel Medinak hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak biltzen dituen, Ernst Neuferten artistak "El Arte de proyectar en Arquitectura" lanaren erreplikekin batera.

---

(*Bilbon, 2022ko maiatzaren 10ean*). Azkuna Zentroak, Bilboko Udalaren Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, Isidoro Valcarcel Medina artista eta arkitektoaren “Arquitecturas prematuras” erakusketa inauguratuko gaur, maiatzak 10 asteartea, Azkuna Zentroak eta Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoak elkarlanean koproduzitua. Kristine Guzmánek komisariatutako erakusketa Lantegian (BAT Espazioa) egongo da ikusgai irailaren 18ra arte

Isidoro Valcárcel Medina Arte Plastikoen Sari Nazionala da (2007) eta arte kontzeptualaren funtsezko figura. Arte-sistemaren nozioen eta konbentzioen eta artearen eta pertsonen arteko harremanen ikerketa kritikoan oinarritutako lana garatu du. Ia 50 urtez, bere lanak eboluzionatu egin du desmaterializazio bateraino, eta desmaterializazio horrek, artearen objektualizazioa ez ezik, bere esperientzia ere

errazten du, eta horrek artistak bizitza eta artea elkarrekin erlazionatzeko duen interesa nabarmentzen du.

“Las *arquitecturas prematuras*” erakusketak Valcárcel Medinak 1984 eta 1992 artean egindako urbanizazio- eta eraikuntza-proposamenen bilduma osatzen dute. Proposamen horien helburua, bere hitzetan, «Hiri-espazioko errealtate berehalakoaren eta ustez hura eratzen duten egituren artean dagoen erabateko kontraesana agerrarazteko» asmoz.

Lehen begiratuan, piezek arkitektura-planoak dirudite, dagozkien soluzio teknikoekin, garai hartan egiten ziren hainbat eraikinen antzekoak diren eskuz egindako marrazkiekin. Tituluak arretaz irakurtzen hasiz gero, ordea —Torre para suicidas, Edificio para parados, Colonia de chobolas... (Suizidentzako dorrea, Langabeentzako eraikina edo Etxola saila)— antzematen da ez direla ohiko proiektuak, proposamen kontzeptualak edo eginezinak direla, ez eraiki ezin direlako, baizik eta bideragarriak izateko beste garai eta pentsamolde bat beharko lituzketelako, Hau da, «goiztiarrak dira».

Erakusketa proiektu horietako hogeita hamar inguruk osatzen dute, eta artista eta arkitektoak arkitekturak beste bizimodu batzuk edo espazioen beste erabilera batzuk proposatzeko duen gaitasuna erakusten du, arlo politikoan eta gizartean eragina duten eztabaidak ahalbidetuz.

90eko hamarkadan seriea bukatutzat eman ondoren, erakusketa aukera paregabea da proiektu horiek guztiak ikusteko, batzuk gaur egun hain indarrean daudenak, eta artista honen beste alderdi bat ulertzeko: arraroa, diziplinarik gabea eta murrizteztina, dibertigarria, benetakoa eta sakonki urratzailea.

Proiektua osatzeko, “Arquitecturas prematuras” argitalpena argitaratu da, Isidoro Valcárcel Medinak hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak eta Ernst Neuferten artistak “El Arte de proyectar en Arquitectura” izeneko lanaren erreplikak biltzen dituena. Argitalpena dendAZ dendan, Azkuna Zentroaren dendan eta [www.dendaz.azkunazentroa.eus](http://www.dendaz.azkunazentroa.eus) webgunean dago salgai.

### **Isidoro Valcárcelekin elkarrizketa**

Erakusketaren irekieraren aurretik, Isidoro Valcárcel Medina, Kristine Guzman, erakusketaren komisarioaren eta Patxi Eguiluzen (Caniche argitaletxea) arteko elkarrizketa izango da Auditorioan. Elkarrizketa horretan, artistaren lana, erakusketa eta «Arquitecturas Prematuras» argitalpena izango dira hizpide.

---

## Isidoro Valcárcel Medina

### *Arquitecturas prematuras*

2022ko maiatzaren 10tik– irailaren 18ra

Lantegia (BAT Espazioa) erakusketa aretoan

#### **Elkarrizketa**

Maiatzak, 10, asteartea, 17:30ean. Auditorioan, sarrera librea aldeztu aurretik izena emanaz gero [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus) webgunean.

#### **Inaugurazioa**

Maiatzak, 10, asteartea, 19:00etan. Lantegia (BAT Espazioa) erakusketa aretoan. Sarrera librea